

EMAKUME ABERTZALEON IV. TOPAKETA FEMINISTAK
ABENDUAK 12 TOLOSAN
“ **Identitate feministak sortuz, Euskal Herria aldatu** ”
Ezker Abertzaleko Prozesu Feministaren zirkularra

Topaketa hauetan parte hartzeak duen esanahia zein tamainakoa den, aurretiko esperientziek ere erakusten digute. Prozesu Feministaren baitan urratsak eman ditugula agerikoa den honetan, aurrera begira jarri eta erraza da ere urrats berriak emateko dauzkagula kokatzea. Asko dugu oraindik ere egiteko, asko dugu hausnartzeko, zehazteko, eta bide honetan topaketa hauek aukera berri bat ere badira gu geu, ezker abertzaleko emakumeok, trinkotzen eta trebatzen jarraitzeko.

Beraz, datorren urteetako estrategia feminista definitze bidean, aurrekoen moduan, topaketa hauek izango duten garrantzia kontutan hartuz, emakume guztion, ahal dugun guztion parte hartzea ezinbestekoa da. Era berean, oinarrizko formakuntza ideologiko feminista lantzen jarraitzeko aukera berri bat ere badugu esku artean, baita identitatearen gaiaren aurrean, orain arteko hutsunea gainditze bidean gure irakurketa propioa kokatzen eta garatzen hasteko ere.

Topaketa hauen testuingurua ere aproposa izan liteke, ezker abertzaleko emakumeon sarea sortzeko apostuan urrats berriak emateko.

Tolosan landuko diren arlo edo gai ezberdinak kontutan izanda, interesgarria ere izango da hauetan parte hartzea, batetik gure lan instituzionari begirako argipena osatzeko, eta bestetik, egoera politiko edo esku artean dugun apustu politiko berriaren aurrean ere, estrategia feministaren eztabaidari ekarpena egiteko bidea zabaltzen hasteko eta alderantziz.

KOKAPENA:

Emakume abertzaleon lehen topaketa feministak Leitzan izan ziren 2001.urtean. Lehenengo topaketa haietan, Euskal Herriko emakumeon egoeraren inguruko diagnostikora hurbildu eta borroka feministan egon zitezkeen beharrak identifikatzen saiatzeko parada izan genuen. Behar horien artean, Euskal Herri osoan lanean jarduteko eragile feminista baten beharra azalatu zen eta gaur egun ezagutzen dugun Euskal Herriko Bilgune Feminista sortzeko baldintzak jartzeari ekin zitzaion.

Handik urtebetera, Bilgune Feminista martxan zen. Borrokaren bidea egiten hasi eta berehala, praktika polikoari eta diskurtsoari dagokionean urrats berri bat ematearen beharra agerian geratu zen. Behar horiei erantzun asmoz, 2003.urteko abenduan, Emakume Abertzaleon II. Topaketa Feministak burutu ziren. Hauetan berriz, emakumeon zapalkuntzan identifikaturiko eremu nagusietan emakumeon egoera aztertu eta beharren arabera lan ildoak zehazteko aukera izan genuen. Jardunaldi hauetan hurrengo urteetarako, Bilgune Feministaren jarduera ardatza izango zena finkatua geratu zelarik..

Azken topaketak testuinguru berezi batetan murgilduta geunden 2005.urtean egin ziren. Euskal Herria negoziazio prozesuan murgilduta zegoen, eta prozesu horretan emakumeok izan beharreko parte hartzearen inguruan hitz egitea ezinbestekoa zela ikusirik, topaketak bilgune izan genituen.

Ordutik lau urte pasa diren honetan Topaketa berri batzuen aurrean aurkitzen gara. Gaur egun emakumeok Euskal Herrian ditugun arazo eta erronken inguruan, ikuspegi jakinez eztabaidatzea ezinbesteko baloraturik, Emakume Abertzaleon IV. Topaketa Feministak burutuko baitira, urratsak ematen jarraitzeko aukera berri bat dugu beraz.

Zer lantzeko aukera izango dugu?

Helburu nagusia, jendartearen eraldaketa izanik, ezinbestean sistema patriarkalaren tresnen gaineko azterketa gaurkotu eta eragile feminista gisa erronkak identifikatzeko aukera izango dugu.

Borroka feminista eraginkor bat garatu ahal izateko, egun mugimendu feministan orokortua dagoen eztabaida bati heltzeko aukera izango dugu, identitatearen inguruko hausnarketa burutzeko parada izango dugu.

Identitatearen inguruko gaia, historikoki mugimendu feministaren eztabaida nagusietako bat da. Hamarkada eta momentu ezberdinetan, izen eta abiapuntu hainbat hartu, mugimendua antolatu, batu eta banatu...izan duen gaia dugu. Tendentzia feminista ezberdinak, eztabaida honi eman izan dieten erantzunaren arabera eraiki izan dira.

Gure praktika feministaren baitan, ezinbesteko hausnarketa ere bada beraz; Euskal Herria feminista bat sortze bidean beharrezkoak ditugun subjeto politikoetaz hitz egin behar dugu. Borroka feministak dituen erronkei eta egungo kontestu sozial eta politikoari erantzun bat emango dien praktika feminista bat sortu eta garatuko duten subjeto feministak.

Euskal Herriko eraldaketa gauzatzeko zein praktika feminista behar dugu? Praktika hori aurrera eramateko, zein subjeto feminista behar ditugu? Subjeto horiek, zein identitate hautsi eta sortu behar dituzte?

EGITARUA:

- ✓ 9:45 - 11:30 Mahai inguru nagusia.
 - Nortasun feminista. Zer da eta nola sortzen da identitate feminista.

- ✓ 12:00 - 14:00 Mahai inguru paraleloak.
 - Euskal Herriko mugimendu feministak. Identitatea landu duten diskurtso eta praktikak.
 - Identitate feministarik gabe ba al dago Euskal Herria aldatzerik?
 - Sexu identitateak; pornografia, prostituzioa, lesbianismoa eta transexualitatea.

- ✓ 16:00 - 16:30 Ideia orokorren esposaketa.

- ✓ 16:30 - 18:30 Mahai inguru nagusia.
- ✓ 18:30 - ... Kalejira, Ekitaldi Politikoa eta ondoren festa.

Guzti honi ondo heldu ahal izateko, Tolosan burutuko diren topaketetan emakume guztion parte hartzea ahalbideratzeko, eskura ditugun baliabide guztiak erabili beharko ditugu. Beraz, zenbait **EGINKIZUN** ere badauzkagu:

- ✓ Deialdia luzatu behar diegu emakume militante guztiei. Egitasmo honen kokapena eginez.
- ✓ Aurrekoarekin batera gure erakundeko emakume kopuru minimo baten parte hartzea ziurtatu behar dugu.
- ✓ Emakume orori bertan parte hartu dezaten gonbidapena zabaldu behar dugu; gure herri, auzo, lantegi, ikastetxe...etab. bizi eta lan egiten duten emakume oro animatuz.
- ✓ Kalejira nahiz ekitaldi politikoan kidego guztiaren parte hartzea sustatu.

Euskal Herrian, 2009ko azaroan.